

KARL BOUDA

1901-II-10 – 1979-VII-31

Joan den urtean hil zitzaigun euskaltzale famatu hori. Egitan hizkuntzalaria zen; berak argitaratu zituen lanak lengoaia aunitz aipatzen dituzte: Kaukasiko, Uraliko, Ipar-Ameriketako hizkuntzak eta abar. Eta euskara, noski: 1933.ean argitaratu zuen “Das transitive und intransitive Verbum des Baskischen”. Urtez urte euskarari buruz zerbait idatzi zuen, adibidez “Land, Kultur, Sprache und Literatur der Basken” (1949), “Etymologies basques” (1950-51), “Die Syntax einiger baskischer Kasus” (1972).

Erlangen-go unibertsitatean irakaslea zen. Bere azkeneko urteetan euskara arras barneki erabili zuen, ikus adibidez “Berichtigungen zu einer Abhandlung über baskische Syntax” (FLV 13, 1972). Lantxo honetan Ernst Lewy’k 1931.ean egindako “Skizze einer elementaren Syntax des Baskischen”i hobetasun eta oharpen batzu ematen dizkio. Arrunt interesgarria da artikulu hori.

Hugo Schuchardt, Ernst Lewy eta Karl Bouda euskalari jakintsuak ziren. Itxaropena dezagun beren bideetan besteak jarraituko direla.

Gunter Brettschneider (Lekarotz)